

KANTAK

San Juan dala, San Juan dala
zapatu arratsaldean.
Hamalau atso tronpeta jotzen
zazpi astoren gaiñean.

Iru ale ta gaztaina kaskalik ez,
gaztañeri hontan sorgiñik ez.
Hemengo batek horko biri,
balio badek etorriari! Etorriari!



Sanjoan dala, sanjoan dala, zapatu arratsaldean,
Hamalau atso tronpeta jotzen, asto beltaren gainean.
Horren kanpai txintxarri, lapikoa jota itxuli,
Horren kanpai txintxarri, lapikoa jota itxuli!



Beasain, 2017ko ekainak 23



SAN JOANETAKO NESKATXEN X. ESKU-DANTZA


Natura berritza dantzaren bitartez

2008an Aurtzaka dantza taldearen ekimenez, Beasainen dagoeneko ohikoa zen San Joan bezperako suaren tradizioari dantzaren inguruko erritu bat gehitu genion, une hartatik aurrera, **San Joanetako neskatxen esku-dantza** gisa ezagutzen dena.

Dantza eta udako solstizioa lotu genituen, eta denboraren poderioz galtzen ari zitzaizkigun Ama Lurraren osagai ohikoak gogora ekartzen ditugu harrez gero, urtero-urtero bai Igartzan bai Barrendain plazan berrosatu dugun ospakizunean.

Erritu berri honetan, urteen poderioz herrian galduak genituen hainbat elementu berreskuratu ziren: emakumeen dantzak alde batetik, eta San Joan inguruko hainbat ohitura bestetik: arbola altxatzea, belar eta loreak bedeinkatzea, uraren sinbologia, suaren inguruan dantzatu eta kantatzea... tartean emakumeak protagonista izan ohi zituzten hainbat erritual, azken batean.

Beasainen, udako solstizioa ospatzeko eta udari ongietorria emateko "alamartxoa" edo "San Joan sua" pizteaz gain, erromeria egin ohi zen orain hamarkada batzuk arte behintzat. Beste herrialde gehienetan bezalaxe, San Joan loreak biltzen ziren eta lizar edo elorri adarrak jartzen ziren etxeetako ateetan; edota "San Joan Arbolea" prestatzen zuten hainbat auzotako gaztek. Lau elementu nagusien inguruko sinbologia aurkitu daiteke udako solstizioaren inguruko ohituretan:





- **EGUZKIA.** Sua izaten da San Joan gaueko osagai nagusia. Suak Eguzkia elikatzen du sineskera zaharren arabera.

- **URA.** Gauerditik aurrera, ura bedeinkatu egiten da, ahalmen bereziak hartzen ditu, sendatu egiten du eta zoriona ekartzen du. Maitasunaren sinboloa da.

- **LANDAREAK.** Bildu egiten dira, lore-sortak egiten dira eta etxeak adarrez hornitzen dira. Emankortasunaren sinboloa dira.

- **AIREA.** Bizitza ematen digu, eta dantza egitera gonbidatzen du, biribilean, beti ere.

Zer egiten dute neskatxek egun honetan

Nahiz eta dantza bat izan ilunabarrean ikusten duguna, dantza horrekin erritual oso bati bukaera ematen zaio, modu honetan euskal tradizioaren arabera urteko ziklo kosmikoaren egun esanguratsu honen osotasuna kontutan hartuz:

Loreak bildu

Igartzan elkartu aurretik, neskatxen taldea mendira joaten da arratsalde pasa, San Joan loreak eta belar onak biltzera. San Joan egunaren inguruan bildutako landareek zorte ona ematen dute, eta gaitzak, trumoiak eta beste urruntzen dituztelako ustea oso zabalduta dago. Garain batean, emakumeek San Joan loreak eta eskura zituzten beste batzuk biltzen zituzten: milorriak, iratzeak, arrosak, krabelinak, lizarra, elorria, greziak...

Koroiak egin

Ondoren bururako koroiak egiten dira bildutako lore horiekin. Horretarako, neskatxa bakoitzari bere guraso edo ahaideren batek laguntzen dio (belaunaldi transmisioaren sinbologia). Denak elkarrekin direla Igartza Jauregiko patioan burutzen da lantegi hau. Sahats-adar batean biltzen diren koroiaren osagai oinarrizkoak hauek izaten dira: San Joan lorea, San Joan iratzea eta milorria.



Arbola altxa

Auzotarrek arbola prestatu eta altxatzen dute, Igartzako zubiaren petrilean.



Afari edo merienda

Igartzan bertan, mokadutxo bat ematen zaie esku-dantzako partaide guztiei.



Arbolari dantza

"Sanjoan dala" kantatuz, ibaitik ura biltzen da pitxar batean, eskutik eskura pasatzen da neskatxen artean, bere bertuteak jaso ahal izateko eta arbolari dantzatzen zaio, lore-sorta bat eskainiz. Jarraian, segizioa Barrendain plazaraino bideratzen da, modu honetan ekitaldi hau beheko herrigunean pizten den betiko suarekin "lotuz".



Alamartxoan dantza

Alamartxoa piztu aurretik, esku-dantza dantzatzen da, buruan sanjoan lore berriak dituztela, belar zaharrak suari eskainiz. Horretarako, neskatxa bakoitzak bere etxean gordetzen du erabilitako koroia, eta hurrengo urtean suari ematen zaio.



Afaria saritan

Hurrengo egunean, parte hartu duten neskatxa eta beren bikote guztiek afaria ospatzen dute herriko ostaturen batean.